

## (I) ELHEKETA : ASTE HONTAKO SOLAS GAIA

1. Piaresek zaldia ikus zuen?
2. Neur galdu zituen xingar zafta eta xahakoan?
3. Jan-Batit nola zeu eta zer zion?

## (II) ORTZANGO ERREKAN 6.

Handia bethi ondotik othe du? Huna jada, Mendiburuko borda... Bilburgune batean, eta batere gelditu gabe, behatzentzu gibelerat... Ibilbideak baizik ez ditu ikusten. Herrestan erremaiten dute zaldiek chun bat urhats oraino; bainan gero, leher eta zapart eginak<sup>37</sup> hek ere, eta Piaresek gibel-karga hazkarkiago eginik, zankez gelditzentz, ikar-daldaretan. Eskuaz eztiki balakatzen<sup>38</sup> ditu orduan Piaresek, eta gero, beharría lurrari. Irua iruzua emaiten da, larre-sor-koaren gainean, gizon-urhatsik deus sumatuko othe duen?... Ez! Handiak noizpeit etsitu bide du, han, behere hartan... Jarritik, orduan, bultatio<sup>39</sup> bat deskantsatzen da gizon gazte zainhartza.<sup>40</sup> Hutsaren hatsez, bulharrak goiti eta beheitzi ari zaizko, zapart egin nahi baliote bezala.

—Ah! nere xahako! Ah! gure ama onak eman xingar zafla!”. Bainan, xingar eta xahako, oro han crainak ditu, doi doia, Ortzango errekan!...

Handik oren bat gabe, Otsansko kaperarat,<sup>41</sup> erdi herrestan, erdi mainguka, terren ten ten, bat bertzearen ondotik heldu, ikus zitezken hogoita bi gizon, eta hogoi pottoka.

Jan-Batit harat hunat bazabilan, begi zorrotz batean; eta, leher gizak, bertze guziak, hari beira, erdi etzanak zauden, kapera zaharreko parearen inguruan. Bere ultxekin<sup>42</sup> uzteko hobea zen Jan-Batit kapitaina...

Eliza zaharraren zola zolan, zabal zabala ikusten den harri-lauzaren<sup>43</sup> gainean eman zen orduan Jan-Batit, eta bere laguneri erran zioten:

—Oro hor gaituk naski orai? Hogoita bi gizon, hogoi pottoka aldiz hogoi eta bietatik Makurrago oraino athera gitezkean. Nork salatu gaituzken? Hobe dik hark hori guk ez jakinik. Bainan Jainkoak bazakik, eta aski dux Piaresek eta Frantzunek pokado bat emanen diaukutek, hor. Otsansbeherean, xutik; eta gero, hemen gehiago mutzitu gabe, eta guardak berriz hunarat gabe, bideari lothuren gaituk, eta, argia gabe, Baionara helduko”.

Eta, erran bezala, biharamun goizean, argi-hasteko, gehiagoko makurrik gabe, oro helduak ziren Baionarat...

daukute = vouvoient ; diaukutek = tutsoient  
gitezken = ——— : gitezkean = ———

## (III) ADITZ IKASKUNTZA.

31. nahi baliote 32. iku zuitezken
33. hunat bezabilan 34. erran zioten.
35. UKAN. Suppositif / forme. (Conj. à double emp.)

Hari = à lui.

Nik banio	= si je le lui avais
Zuk baginio	= si vous le lui aviez
Harek baliot	= s'il le lui avait
Guk baginio	= si nous le lui avions
Zuek baginio	= si vous le lui aviez
Heiek baliote	= s'ils le lui avaient
Emaiten banio	= si je le lui donnais

32. IZAN. Potentiel / Imparfait.

Ni	ezan ninteken	= je pouvais être
Hi	" ninteken	= tu pouvais être
Zu	" zinterzken	= vous pouviez être
Hura	" ziteken	= il pouvait être
Guk	" gitezken	= nous pouvions être
Zuek	" zinterzketen	= vous pouviez être
Heiek	" zitezken	= ils pouvaient être

## 33. IBILI INDICATIF

Present Indicatif

Ni mabila	(je marche)	mindabilan (je marche)
Hi habila		hindabilan
Zu zabilta		zinabiltzan
Hura dabila		zabilan
Guk gabilta		guabiltzan
Zuek zabilzate		zinabiltzaten
Heiek dabiltza	etc.	zabiltzan